

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/3/14 | 340

- 🌀 Ibon Artola eta Garbiñe Biurrin
- 🌀 Gizarte Segurantzaren RED sistema
- 🌀 Tolosaldea ere aldarrikapenerako gune
- 🌀 Zintzilik: Twitter euskaraz
- 🌀 Agenda, horoskopoa ...

Koldo Izagirre:
“Euskararen
lehen mailako
hiria izateko
Tolosak zer
falta du?”





ARETO
NAGUSIAN
*Etanri aurretik
izena eman!*

902 110 436

www.mondragon.edu/prest


ATE IREKIAK

Goierriko campusa

INGENIARITZA

ORDIZIA, MARTXOAK 26

larunbata, 11:00



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com



CITROËN, MONOBOLUMENETAN™
LEHENAK, FAMILY BONUS-A
AURKEZTEN DU.

CITROËN profeta TOTAL.

HILABETE HONETAN BAKARRIK
FAMILY BONUS:
4.000€*
PICASSO GARA GLEZIAN BEZERO
ABANTAILA ESKANITZEN DU.

SINGLEENTZAT:



CITROËN C3 **9.800€**** TK



CITROËN C1 **7.500€**** TK

KONTSUMO MIXTOA 3,1/100 KM / CO2 EMISIOA (g/KM): C1: 4,5-4,6 / 103-106, C3: 4,9-6,6 / 104-153, C3 PICASSO: 4,6-6,4 / 119-149, C4 PICASSO: 5,0-7,0 / 130-177

(*) 2011ko estatuko aldatutako metodak erabiltzen dira. **PVPen beharrezko zehaztasunak (beste gabe geroztasunak) erabiltzen diren unetan limitatuta. **PVP geroztasun C3 1.5i, C1 1.0i X (argi), geroztasun eta aldatutako beste hileko hilerako beste geroztasunak erabiltzen diren unetan erabiltzen dira. Deialdeko eta beste partikulatutako. Deialdeko ez geroztasunak. Irudiko modelak, C3 HDI 110 bhp Exclusive eta C1 Astar.



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia,
 Juankar Arregi
 Zuzentzailea: Nora Olano
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOITIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irua, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA




Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Euskararen xuxurla belarrira ahozotasunaren indarra sentitzeko

Gure aiton-amonen gazte denboretatik komunikatzeko moduak asko aldatu dira. Teknologia berriek pertsonen arteko komunikazioak egungo bizimodura moldatu dituzte. Sare sozialek, txat-ak,... azkar komunikatzea ahalbideratu dute. Aldiz, aurrez aurre –lagunen arteko hizketa-diak, bilerak,...- geroz eta gutxiago hitz egiten dugu eta, ondorioz, ikerlariek ahozko hizkuntza pobretzen ari denaren ustea dute. Hizkuntza guztiak ari omen da gertatzen.

8-13. orrialdeak

Euskarari autopsia egin eta artseniko aztarnak topatu ditu Koldo Izagirrek. "Autopsiarako frogak" izeneko saiakera liburuan bildu ditu frogak eta Galtzaundik berarengana jo du argibide gehiagoren eske.

Koldo Izagirre

16-18. orrialdeak

| | | |
|--|---|-------|
| | Iritziaien leihoa: Ibon Artola eta Garbiñe Biurrun | 4-5 |
| | Normalizazioa: Gizarte Segurantzaren RED sistema | 6-7 |
| | Eskualdeko albisteak: Tolosaldea ere aldarrikapenerako gune | 14-15 |
| | Zintzilik: Twitter euskaraz | 19 |
| | Agenda, horoskopoa ... | 20-21 |

Hasi da herri arabiarretako iraultza



Ibon Artola

Euskal Herria Sozialista-ko kidea

4 Herrialde arabiarretan historia markatzen duten gertakariak ari dira ematen. Ben Aliren diktaduraren aurka hasi zen Tunisian eta Egiptora zabaldu zen ondoren, eta bertan ere masak Hosni Mubaraken diktadurarekin amaitzea lortu zuten. Ondoren Libiaren txanda etorri zen.

Gertakari hauek eragin handia ari dira izaten gainontzeko herri arabiarretan eta baita mundu osoan ere. Iraultza hauek inflexio puntu bat dira herri arabiarren historia modernoan. Herrialde bakoitzean nola adieraziko den eta zein erritmotan emango den jakiteko hainbat faktorek dute zerikusia, baina prozesua orokorra da eta agintari arabiarrek ezingo dute egoera ezegonkor honetatik alde egin. Garrantzia berezia izango du Argelian eta Marokon gertatzen denak ere.

Iraultza hauekin bukatzea helburu duten bertako kapitalistak eta inperialismoa mota guztietako maniobrak erabiltzen ari dira hasieratik. Tunisian adibidez "batasun nazionalako gobernu" eratzeko deia egin zuten, RCD (diktaduraren alderdia), oposizio legala (mugimenduaren aurrean autoritate gabea) eta bereziki UGTren (Tunisiako sindikatu na-

gusia) artean. Baina "batasun nazionalaren" ideia tranpa izugarria da Tunisian, Egipton edo beste inon. Zer nolako batasun nazional eman daiteke diktadurarekin aberastu direnen eta honek zapalduak izan direnen artean? Iraultza zapaltzea nahi dutenen (nahiz eta orain alde daudela esan) eta miseria, pobrezia, langabezia eta errepresioa bizi dituztenen

arteak? Maniobra honekin kapital nazional eta internazionalak egoeraren kontrola hartzea, masak baretzea eta hauek etxera joatea soilik nahi zuten. Baina ez zen horrela izan. Herritarren presioak UGTtako ministro izendatu berriak dimititzera, parlamentutik alde egitera eta diktaduraren instituzioak ez onartzera behartu zituen. Azkenik, UGTtako zuzendaritzak, eztabaida gogor baten ondorioz, gobernuaren azken proposamena onartzea erabaki zuen, RCDko kideen kanporatzea suposatzen zuena, baina Mohamed Ghannuchi (Ben Aliren lehen ministroa 11 urtetan) bere postuan mantenduz. Erabili zuten argudioa "egonkortasuna bermatzea" izan zen. Otsailaren 27an ordea masen mugimendu iraultzaileak behera bota zuen gobernu hau ere. Honek erakusten du iraultza oraindik ez dela bukatu, masak intuitiboki mesfidantza handia zeukaten hasieratik eraturako gobernuan eta ez ziren beraien berehalako arazoak konpontzeko zain gelditu. Antzeko gauzak ikusteko aukera izango dugu gainontzeko herri arabiarretan.

Iraultzak aurrera egin dezan eta herritarren bizi baldintzek eta eskubideek benetan aurrera egin dezaten, bai Tunisian, Egipton edo Libian, auzi erabakigarria dira herritarren komiteak. Urtarrilaren 30ean Sindikatu Independenteen Egiptiar Federazioa sortu zen, industriako eta zerbitzu publikoetako langileak eta jubilatuen batzen dituen eta bere deklarazio publikoan honakoa zioena: "langile egiptiarrak komite zibilak sortuz gonbidatzen ditugu beraien lan-tokiak defendatzeko eta protesta

akzioak eta grebak antolatzeko, herri egiptiarren eskakizunak lortu ahal izateko". Mugimenduak antolatu beharra dauka. Fabrika bakoitzean, auzo bakoitzean, unibertsitate bakoitzean, borroka komiteak sortu behar dira, delegatu kengarriekin eta herri eta zonalde denetara zabaldu. Komite horiek altxamenduari antolakuntza eman behar diote, autodefentsa prestatzeko (lokal sindikalak eta manifestariak defendatzeko) eta soldaduak iraultzara erakartzeko. Eta ez soilik borroka antolatu, ekintza sozialaren aspektu guztiak ere beraien kontrolpean jarri behar dituzte: osasun publikoa, segurtasuna, hornigaiak, ... Komite hauek, momentu jakin batean boterearen gune garrantzitsuenak hartzeko antolatu behar dute, altxamenduaren garaipena bermatuko lukeen greba orokor bat antolatuz eta Estatu berri baten oinarri bihurtuz, Estatu sozialista bat. Behetik gora antolatuta, sozialismoaren programa batekin eta mugimenduaren parte hartze zuzenarekin soilik izango da posible bizi baldintzaker erradikal eta bizkor batean hobetzea. Enpresa eta lur sail handiak, multinazionalak eta bankuak desjabetuz eta langileen kontrolpean ipiniz, herritarren gehiengoaren beharrak aseztzeko baliabideak egongo lirake. Beharrezkoa da, era berean, deialdi internazionalista bat egitea herri arabiarretan iraultza zabaldu eta sakontzeko. Arabiar Federazio Sozialista baten ideiak, inperialisten eta hauen gobernu eta diktadura txotxongiloen amesgaiztoarekin bukatuko lukeenak, inoiz baino aukera erreale gehiago ditu.

Oraindik negua?

Gero, egun horietan, gure Iñauteriek bizitza bera adierazten dute: poza, negarra eta, batez ere, egia. Tolosa bera da, belaunaldi desberdinak musikak, errituak eta itxaropenak batuta. Gure bihotzen taupadak erritmo berrietara moldatzen dira: azkarrago kalejiretan, mantsago habanerekin.

Gure Iñauteriek mundu osoa biltzen dute. Unibertso osoa ekartzen dugu guzuekin kanpoan ibili eta gero herrira itzultzen garenean eta gure barnean irudiak eta oroitzapenak gordetzen ditugunean. Gure koloreak, gure musikak eta gure jantziakaleratzen ditugunean, Unibertso osoa partekatzen ari gara gure herrikideekin.

Urtero berritzen diren jaia eta soinuak, emozioak, topaketak eta itxaropenak. Urtero berritzen den egia.

Eta Iñauteriak bukatu eta berehala, gure egunero-kotasunera itzultzen gara eta betiko moztorra jantzen dugu. Baina urte osoan zehar kolorez, musikez, irudiez eta ilusioz betetzen gara egun berezi hauek elkarrekin gozatu ahal izateko. Oraindik negua denean, baina udaberria dirudienean.

Aurten, gainera, itxaropen berria ekarri digu neguak: bakearen itxaropena. Otsailaren 7an Euskalduna Jauregian Batasunari lotutako ezker abertzaleak proposamen berria aurkeztu zigen. Eguerdia hartan eta oraindik

entzuten ari garenak etorkizun berria zabaldu dute nire barnean eta gure gizartean. Lehendabiziko aldiz, azken 50 urteotan, ETak ez dauka aitzakia politikorik eta, beraz, ez dauka etorkizunik; herritarrok, aldiz, aukera berriak ditugu.

Ikusteko dago Udaberriak (eta Auzitegiek) zer dakarren. Baina Neguak ekarri digu horren denbora luzez eskatu duguna eta zor zitzaiguna: ezker abertzale historikoak jarduera terrorista errefusatzea eta politika bakarrik egin nahi izatea.

Garrantzia handiko eta atzera pausorik gabeko erabakia hartu dute. Demokraziak, bakeak, giza eskubideak eta askatasunak dira garaile eta indarkeria eta mehatxua galtzaile. Bide berriak sortuz, Unibertso berri batean sartu dira ezker abertzale historikoko kideak. Zalantzarik gabe, euren bihotz-taupadak ere erritmo berriez arituko dira hemendik aurrera eta kolore eta soinu berriez gozatzeko aukera izango dute. Unibertso horretan egingo dugu dantza denok, askatasun osoz: batzuetan arin eta bestetan motel; batzuetan kalejiran eta bestetan dantza lotuan habanerekin. Gure Iñauterietako abesti batek dioen bezala: batzuetan pirrin, bestetan tirrin.... Hori besterik ez da eta bizitza, eta guk bizitza nahi genuen.



Garniñe Biurrun
Epailea

Urtero, urte berriarekin batera, garai berezia iragartzen zaigu. Eguberria bukatu bezain azkar, gurgil berri batean murgiltzen hasten gara; errituzko jarduera bati ekiten diogu askatasunaren bila. Labur esanda: Iñauteriak prestatzen eta Iñauterietarako egokitzen hasten gara, egun berezi hauek iritsi arte.

Gizarte Segurantzaren RED siste eta galizieraz egitea debekatuta

6 Gizarte Segurantzaren RED sistemak gero eta gestio gehiago bideratzen ditu eta, abian jarri zenetik urte asko pasatu bada ere, gaur egun ez dago euskaraz, katalanez eta gailegoz erabiltzerik.

UEMAko Zuzendaritza batzordea

Ondorioz, enpresa edo erakunde bakoitzean dauden langileei buruzko gestioa egin ahal izateko (esate baterako, altak, bajak, gizarte aseguru ordainketak...), gaztelera erabiltzea behartuta gaude.

Gaur arte, zeregin horiek euskaraz egiteko aukera izan dugu. Hala ere, ez da erraza izan zeregin horiek euskaraz egitea, Gizarte Segurantzak ez dituelako beharrezko inprimaki asko euskaraz eskaini. Horrek lan gehigarria ekarri die udal eta enpresei, agiriak euskaraz jartzen edo eskuratzen saiatu behar izan dutelako.

Duela urte batzuetatik RED

sistema jarri du abian, baina indarrean jarri zenetik hona Gizarte Segurantzak ez du inolako ahaleginik egin eleaniztasunera egokitzeko. Beraz, ez euskaldunok bakarrik, katalanek eta gailegoek ere ez dute aukerarik euren hizkuntzan jarduteko. Zer esanik ez asturiarrek eta aragoieraz mintzo direnek. Hau da, guztira ia 14.000.000 pertsonak (hamar biztanletik hiruk) ezin dugu gure hizkuntza erabili Gizarte Segurantzaren RED sisteman.

UEMAko udalek zein enpresa askok euskara daukagulan hizkuntza, baina, kanpotik, euskaraz lan egiteko eta

bizitzeko aukera hori ukatzen zaigu.

Gainera, 2011ko urtarriletik aurrera ezin izango da papera erabili, eta enpresa eta erakunde guztiak behartuta gaude RED sistema erabiltzera, gaztelania hutsean. Hartara, Euskal Autonomi Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan, Katalunian, Valentzian, Balearretan eta Galizian gure hizkuntza propioak babesteko dauden

lege guztiak erabat baztertu eta zokoratu ditu Gizarte Segurantzak.

Hori ikusita eta arazoa konpontzeko, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea harremanetan jarri zen Bizkaiko Gizarte Segurantzarekin. Erantzunik ez zegoenez, Espainiako Legebiltzarreko euskal parlamentari batzuei arazoaren berri eman zitzaizen, Espainiako parlamentuan arazoa mahai-gai-



Korrika laguntzaile pinak Galtzaundin eskuragai

Korrika laguntzaile pinak Galtzaundiko egoitzan salgai daude. Eskaria alde aurretik telefonoz egitea beharrezkoa da - 943 65 50 04-. Laguntzaile egiten diren guztiak, 12 euroren truke, laguntzaile direla adierazten duen pina, urtarriletik aurrera Euskal Herriko ehunka komertziotan beherapenak izatea ahalbidetuko dien Korrika Laguntzailea txartela, eta txartela erabili ahal izango den komertzioen zerrenda duen katalogoa eskuratuko dituzte.

*Irakurle taldea
Apirileko tertulia*

Eguna: apirilak 7, osteguna

Ordua: 19.30

Lekua: Tolosako Kultur Etxea

*Irakurri beharreko liburua:
"Haragia"
Eider Rodriguez bertan izango da*



**BENTA
ALDEA**
JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

man euskaraz, katalanez dago

neratzeko. Horren ondorioz, EAJren ekimenez, ez-legezko proposamena onartu zen azaroan Madrileko legebiltzarrean Estatuko Administrazioa elea-niztasunera egokitzeko beharra azpimarratzeko eta, zehazkiago, zerbitzu telematikoetan epe labur-laburrean eskubide horiek bermatzeko egin beharrekoak egin zitzaten.

Gestio horien ondorioz, UEMari eta bertan parte hartzen duten hiru udali behin-behineko baimena eman zieten euskarazko paperezko agiriak erabiltzen jarraitzeko, RED sistemaren orde. Nolanahi ere, langileen gizarte zergak ordaindu behar dituen ba-

koitzean, Gizarte Segurantzako bulegoetara joatera "zigortu" dituzte lau erakunde horiek. Bestalde, Gizarte Segurantzak ordainketa horiek finantza erakundeetan egin ahal izateko, "Autorizado" zigilua jarri eta berriro finantza erakundera joan beharko dute, ordainketa egitera. Azken batean, euskaraz lan egin nahi izateak lan gehiago eragin digu, paperean funtzionatu behar izatearen ondorioz.

Guzti horrengatik, UEMaren eta euskaraz diharduten gainerako udal eta enpresen eskubideak kontuan hartuz, Gizarte Segurantzari honako eskaera egiten diogu:

- Hizkuntz alorrean dauden lege guztiak betez eta beteaz, Gizarte Segurantzak ez dezala baztertu euskaraz edo tokian tokiko berezko hizkuntzetan lan egiteko erabakia hartu duen erakunde publikoak, eta onar dezala gaztelania ez beste hizkuntzak erabiltzea Gizarte Segurantzarekiko idatzizko harremanetan.

- Bigarrenik, RED sistemari dagokionez, Gizarte Segurantzak sistema hau ahalik eta lasterren euskaraz, katalanez eta galizieraz erabiltzeko aukera eman dezan, aparteko lanik edo ezelango zigorrik jaso behar izan gabe.

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxe: 943 674 113



**errotatxo
okindegia**

Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038

Euskararen xuxurla belarrira ahozkotasunaren indarra sentitzeko

Gure aiton-amonen gazte denboretatik komunikatzeko moduak asko aldatu dira. Teknologia berriek pertsonen arteko komunikazioak egungo bizimodura moldatu dituzte. Sare sozialek, txat-ak,... azkar komunikatzea ahalbideratu dute. Aldiz, aurrez aurre-lagunen arteko hizketaldiak, bilerak,...- geroz eta gutxiago hitz egiten dugu eta, ondorioz, ikerlariak ahozko hizkuntza pobretzen ari denaren ustea dute. Hizkuntza guztiekin ari omen da gertatzen.

Igor Mujika

Hain justu, euskara eta ahozkotasa gaitzat hartuta Tolosan ekimen andana egingo da ondoko egunetan "Ahoz, hari eta ari" lelopean. Hainbat elkartek-tartean Galtzaundi euskara elkartek-, komunikabidek, instituzioek eta ikastetxeek elkarlanean antolatu dituzte ekimen horiek. Euskararen ahozkotasanaren esparruan erreferentziako ikerketa eta bilgune izateko sortua den Mintzola fundazioko ordezkariak erlan horretan aritu dira eta, ahozkotasanaz eta euskaraz

aritzeko, Mintzolako zuzendari Josune Zabalarerekin hitz egin du Galtzaundik.

Josune Zabalak azaldu digunez, "komunikatzeko lehen ez genituen euskarri batzuk ditugu orain eta, horrek, gure komunikazio moldeak aldatu egin ditu. Geroz eta gehiago irudia da komunikatzen dena edo komunikatu nahi dena". Horren erakusle, facebook-a izan daiteke. Halaber, komunikaziorako bitarteko berriei esker orain azkarrago eta norbanako gehiagorekin harreman ahal gara. Twitter-a, txat-ak,... horren adibide dira. Aldiz, aurrez aurreko

hizketaldien bitartez geroz eta gutxiago komunikatzen gara. Horrek guztiak ahozko hizkuntzaren kalitatean eragin du. Hala azaldu digu Josune Zabalak: "ez ote den ahozko hizkuntza pobretzen ari esaten dute ikerlariak. Lehen askoz luzeago, dotoreago eta erregistro gehiagorekin hitz egiten ote genuen. Komunikatzeko patxada galdu dugu eta, berarekin, komunikazioaren barruan dauden beste elementu batzuk: gorputzaren adierazpena, begirada, itxurak daukan eragina, ahotsa,... horrek guztiak ere transmititu egiten du". Hizkuntza guztiekin



gertatzen ari den ezaugarria da ondokoa, Zabalak azaldu digunez.

Hari beretik tiraz, "anekdotak, egoerak, istorioak,... kontatzeko edadetuek daukaten gaitasunaren horrenbestekoa guk ez dugu. Askoz kontakizun laburragoak erabiltzen ditugu, gaztelera nahasten da umorea txertatzeko garaian, euskararen ezaugarriak diren istorioak kontatzeko estrategiak,... geroz eta gutxiago entzun eta erabiltzen dira", esan du Zabalak.

Baserritarren eta kaleraren topagune izan ohi da larun-

batero Tolosako Zerkausia. Gure baserritarren produktua erosteko aukeraz gain batzuen eta besteen lexiko nahiz hitz jokoak entzuteko aukera izaten da merkatuan. "Ahoz, hari eta ari" lelopean egingo diren ekimenetarikoz batzuk bertan izango dira. Esaterako, Anjel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña bertsolariak bertsoetan ariko dira apirilaren 9an. Jon Martin eta Iñaki Apalategik, berriz, "Zazpi astoren gainean" ikuskizuna eskainiko dute Larreategi anaien trikiti doinuek lagunduta apirilaren 2an.

Jendaurrean

Berezkotasunez ala behin eta berriz aritzearen poderioz ikasita, bertsolariak jendaurrean aritzeko trebetasuna dute. Herritarren batzarretan, hitzaldietan,... aldiz, isiluneak, sarri, luzeegiak izaten dira. Josune Zabalaren iritzian, "kulturala da. Zenbait tokitan oso ohituta daude horrelako jardunbideetan parte hartzen. Anglosaxoiak, esaterako. Gure kasuan, berriz, hiztunari ikuspuntu negatiboa ematen diogu batzuetan. Badiogu, halaber, jendaurre-



Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor
eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa



BATXILERGOA

GUK LASALLE BERROZPE ETA ZUK?

Ate irekiak

Martxoak 22 17:00

LaSalle Berrozpe

LSB

Andoain

www.lasalleberrozpe.com

Joseba Tapia: "Kantutegia garai bateko Euskal Herri baten lekukotza da

Naiara Roldán de Aránguiz

"Ahoz, hari eta ari"-ren baitan "Eta tira eta tunba" izango dugu. Izan ere, datorren martxoaren 25ean, Tolosako Topic Aretoan Joseba Tapia bere haize-instrumentu bandarekin batera ikusleagoa kantuan jarri eta Bigarren Gerra Karlistara eramango du, liberal eta karlista euskaldunen bizipenak taula gaineratuz.



Zuzeneko kontzertua eskainiz, martxoaren 25ean, Tolosako Topic Aretoan izango zara...

Jada 20-25 bat saio egin ditugu eta zuzenekoa, dagoeneko ondo prestatua daukagu. Jen-deak parte hartzen du, eta gozaten ikusten dugu. Historiak sortzen duen ikusmira eta entzumira azpimarratzekoak dira. Entzulea ondo sartzen da historian. Ia disko osoa kantatzen dut, testuingurua esplikatzuz, bertaratutakoak giroan sartzeko. Oso estribilo errazak dira eta jendea segituan kantuan jartzen da.

Kontzertu hau Euskerenea izeneko ahozketasunaren jaialdiaren baitan kokaturik dago. Zer nolako garrantzia du ahozketasunak euskal kulturgintzaren igorle lanetan?

Guk tradizio handia dugu ahozketasunean, ikusi besterik ez bertsolaritza. Nik ordea bertsolaritza idatzia lantzen dut, bertso idatziak kantatuz. Gure herri honi aukera handi bat ematen dio ahozketasunak. Bertatik hartzen dituelako estruktural eta baliabide estilistikoak behar ditueneko. Bertsoak ematen dio aukera eta ez du sortzen ibili beharrik. "Agur Intxorta maite" kantutegian ere horrela ikusten da. Momentu larrietan herriak tradiziotik datorrena erabiltzen duela gertatua kontatzeko. Hori oso garrantzitsua da.

Bigarren aldiz gerrako kantutegia abiapuntu. "Agur Intxorta maite" lanaren ondoren "Eta tira eta tunba" osatu duzu. Zerk erakarri zaitu?

Kasualitate hutsa izan da kantutegia topatu izana. Batez ere bertsolarien bildumetan aritu naiz bila baina karlisten kantutegiak ere arakatu ditut, ia dena bilduta eta argitaratua zegoen. Irakurri ondoren atzean izugarriko historia zegoela iruditu zitzaidan, garai bateko Euskal Herri baten lekukotza. Nahiz eta Espainiako gerra bat izan bertso hauetan euskaldunen artean ere ikuspegi ezberdina bazeudela ageri da, gizartea ulertzeko modu ezberdinak, elkarrekin talka egiten zutenak. Azkenean Kantutegi honek Euskal Herri hura konprenitzeko balio izan dit. Bestalde gure tradizioaren atal garrantzitsu bat zela iruditzen zitzaidan, gure folkloreaken zati bat oraindik kantatu gabekoa.

Bestalde, kantuak adierazita dauden modua, hizkera bera oso

interesantea iruditu zitzaidan. Bertso estruktura izan arren, askotan estribiloak topa daitezke, eta hori ere ez da hain normala. Kantatzeko gogoa piztu zidaten irakurri orduko.

Oraingoan, bigarren gerra karlista abiapuntu hartuta, karlistek eta liberalek idatzitakoak jaso dituzu. Nolako prozesua izan da hitzak abesti bihurtzea?

Hasieran doinuak berreskuratut nahi baina akatsekin topatu nituen, letren estrukturalak eta doinuak ez zuten bat egiten. Horregatik, sei doinu berreskuratut eta besteei nik jarri nien musika. Batez ere bertso doinuetatik abiatuta egin dut lan, lehengo bertsoak zaharrean oinarrituta. Garaira hurbiltzen saiatu naiz.

1872-76 bitartean gertatutako gerra sakonkiago ezagutzeko parada izan duzu. Zerk harritu zaitu gehien?

Niretzat sorpresa izan da liberalen artean euskaldunak ere

bazeudela ikustea. Uste nuen herriengoei karlisten alderdian borrokatu zutela, pentsa zer jakituria neukan eskolatik! Alde bietan euskaldunak zeuden beraz eta biek euskara erabili zuten bertsoak eskribitzeko eta elkarren kontra zirenak eta ez zirenak esateko. Gerra Karlista bidegurutze bat izan zen, ondoren etorri den guztia konprenitzeko ezinbestekoa. Gerra horren seinale ugari ditugu gaur egun ere gure inguruan -kale, plaza, monumentu izenak: Foruen Plaza, Zumalakarregi kalea...-. Kantuetan ere aztarnak daude, "Eta tira eta tunba" eta "Azpeitiko neskatxak" orain arte abestutako abestiak dira.

"Eta tira eta tunba" diskoan Tolosari ere erreferentzia egiten zaio...

Badirudi Tolosa setiatuta izan zutelako karlistek, Tolosa liberalek hartuta zutelako. "Tolosako neskatxak" kantuan setio garaiari egiten zaio erreferentzia; bertako neskek kanpoko militarrekin jolasean ibili zirela aipatzen da.

kotasunari nolabaiteko bel-
durra edo fobia, ziurrenez,
trebatu ez garelako eta isilik
egoten erakutsi digutelako.
Haurtzaroan edo gaztaroan
isilik -irakasleari entzuten,...-
egoten ikasi ondoren, hel-
duaroan hitz egiten hasteak
ikaragarriko beldurra ematen
du. Horren irtenbidea zein da?
Treatzea, jendeari hitz egiten
erakustea, laguntzea,... eta
umetatik hori lantzea". Horretarako
aukera izango dute etxeko txikiak
apirilaren 9an umeentzako
egingo den karaokean. Hel-
duenek, berriz, martxoaren
26an Tolosa Kantarirekin
batera Tolosako kaleetatik



Euskaraenea. "Ahoz, hari eta ari"

Egitaraua

Martxoak 18, ostirala (Aitzol-en jaiotzaren 115. urteurrena)

17.00-20.00. Kultur Etxea.
Jose Ariztimuño Olaso Aitzol-ek idatzitako testuen irakurketa saioa.

Martxoak 25, ostirala.

20.30. Topic. Joseba Tapiaren kantaldia, "Eta tira eta tunba" azken diskoaren aurkezpena.

Martxoak 26, larunbata.

12.00. Tontokaletik abiatuta Tolosa Kantariren kantaldia udal txistulariek lagunduta. Ondoren kantu bazkaria, Oargi elkartearen. Prezioa: 20 euro. Menua: entsalada mistoa, bakailaoa pil-pilean, fritada, arroz esnea eta edaria. Txartelak salgai: Sirimiri, Elurra, Babes eta Amaroeko Ekaitz tabernan.

Martxoak 28, astelehena.

19.30. Lizardi Kultur Elkartearen. Korrika 17ren aurkezpena.

Martxoak 31, osteguna.

19.00. Kultur Etxea. Korrika 17ren dokumentala: Euskaltzaindia eta euskalduntze-alfabetatzea.

Apirilak 2, larunbata.

11.30. Zerkausia. "Zazpi astoren gainean" bertso ikuskizuna. Jon Martin eta Iñaki Apalategi bertsolariak eta Larreategi anaiak trikitalariak.

Apirilak 6, asteazkena.

19.30. Kultur Etxea. 'Ahoz-kotasuna irakaskuntzan' hitzaldia, Mintzola Fundazioko Maitane Aiartza eta Iñaxio Usarralde.

Apirilak 8, ostirala.

20.30. Kultur Etxea. Koldo Amestoy ipuin kontalariaren 'Biribilketa' emantaldia.

Apirilak 9, larunbata.

11.30. Zerkausia. Ferian bertsoetan. Anjel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña.

17.00-18.30. Zerkausia. Karaokea umeentzako.

Apirilak 13, asteazkena.

Korrika Tolosara iritsikoda.

Apirilak 15, ostirala.

20.30. Kultur Etxea. 'Xentimorik gabe...' antzezlanaren aurkezpena, Ramon Agirre eta Inazio Tolosa.

Antolatzaileak: Bertsozale Elkartearen, Galtzaundi Euskara Taldearen, Hirukide Ikastetxearen, Hitza Egunkariaren, 28 Kanala Telebistaren, Inmakulada Ikastetxearen, Korrika Batzordearen, Laskorain Ikastolaren, Orixe Institututuen, Samaniego Herri Eskolaren, Tolosa Kantariaren, Txolarre Irratien, eta Tolosako Udalen (Aitzol Udalen Euskaltegiaren eta Euskara Zein Kultur Batzordearen).

Galtzaundi 340
11ko martxoak 18

Xirimiri

Txokolategia
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi

SEGUROS
BILBAO



Aholkularitza
integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin Eceizabarrena

Instalazio
erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

J. San Sebastian MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

barrena lehenik, eta Oargi elkartean ondoren, kantuan aritzeko aukera izango dute. Halaber, Mintzola fundazioko ordezkariak Tolosako hiru ikastetxerekin egiten ari diren ikerketaren berri emango dute apirilaren 6an "ahozkotasuna irakas-kuntzan" lelopean eskainiko duten hitzaldian. Zabalak aurreratu digunez, "Tolosako hiru ikastetxerekin lau urteko ikerketa bat egiten ari gara ahozkotasuna ikastetxean nola landu, gazteen hizkuntza erabilerak eta jokabideak zeintzuk diren jakin eta esku hartze batzuk bideratzeko".

Gorputz espresioa

Aurrez aurreko komunikazioan hitzez esanak bezain besteko garrantzia du gorputz espresioak. Hala azaldu digu Josune Zabalak: "zenbait adituk esaten dutenaren arabera, komunikazioan hitzak %35-%40 betetzen du eta gainerako guztia ahotsak eta gorputz espresioak betetzen dute. Komunikazioan, hitzaz gain beste hainbat ezaugarri daude beraz: gorputza, begirada, ahotsa, espazioa nola antolatzen duen pertsona horrek, zenbaterainoko ahotsa darabilen espazioaren arabera, jarrerak, gauzak esateko moduak,... Faktore askok eragiten dute komunikatzerako orduan eta, horren arabera, gauza bat edo bestea adierazten da". Horren erakusgarri dira antzezlanak, eta, Ramon Agirre eta Inazio Tolosa antzezle ezagunek "Xentimorik gabe" ikuskizuna aurkeztuko dute



Tolosan hilaren 15ean.

Joseba Tapiak, berriz, iraganeko kantuek ekarriko dizkigu guregana. Il. Karlistadako kantuekin egindako abestiak joko ditu "Eta tira eta tunba" diskoaren aurkezpen emanaldian. Transmisioari buruz galdetzean, Josune Zabalak argi erantzun du: "norbaitezko iraganaren berri izan behar dugu eta hurrengo ere gure bizipideak azaltzea dagokigu. Kateak ezin du etenik izan eta, bide horretan, Joseba Tapiak, beste disko batzuetan egin duen bezala, hizkuntzaz gain, edukiak eta bizitzeko molde batzuk transmititu dizkigu. Gure hizkuntza komunitatean horrelako transmisio kateak beharrezkoak dira hizkuntza lantzeko, transmititzeko eta hizkuntzarekin batera hizkuntza komunitate horren pentsatzeko eta gauzak egiteko moduak transmititzeko".

Bide horretan, gure aiton-amonak hiltzarekin bat hizkuntzak zenbat galtzen duen galdetzean, hala azaldu digu Josune Zabalak: "be-

raien historia, ezagutza, hitz egiteko moldeak eta jakiteko eta gauzak egiteko moldeak galtzen dira. Gakoa hitz egiteko modu eta jakintza hori belaunaldiz belaunaldi zenbat transmititzen den da". Izan ere, eta Mintzolako zuzendariak azaldu digunez, "belaunaldiz belaunaldi eraldatu egiten da hizkuntza eta, ziurrenez, beraien jardun batzuk dagoeneko nahiko zaharkituta edo galduta izango ditugu. Hizkuntza bizirik eta benetan indartsu baldin badago, berri batzuk sortu edo eraldatu egingo ditu. Bestela badakigu zer gertatzen den".

Ipuinak eta kondairak

Transmisiorako bide dira ere ipuinak eta kondairak. Belaunaldiz belaunaldi kontatu diren istorioen, norberaren sentimenduen eta fantasien transmisiorako bide dira. Eta, Euskaraeneak antolatuta Koldo Amestoy ipuin kontalariak "Biribilketa" ikuskizuna aurkeztuko du apirilaren 8an eskainiko duen emanaldian. Amestoyk

aurreratu duenez, "zenbait herrietako kulturetan praktikatzeko diren biribilketa erako dantzen sinboloan oinarrituriko -karakoitze, soka dantza, *danza prima*, *granitula*, *danza del caracol*, *danse du labyrinthe*,...-, ikuskizuna da". Publiko helduari zuzendutako emanaldia izango da honakoa.

Azkenik, kultur eta pentsamendu transmisioa eta euskaltzetasuna uztartuko dira Jose Ariztimuño Olaso Aitzol-en jaiotzaren 115. urteurrenaren eta Korrikaren 17. edizioaren harira egingo diren ekitaldietan. Batetik, Aitzol-en testuen irakurketa egingo da martxoaren 18an. Bestetik, apirilaren 13an, 07:15 eta 08:15 artean, pasako da Tolosatik gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskolen nahiz euskaltegien lana indartzeko dirua biltzea helburu dituen Korrika.

Beraz, itsasotik datorren haizearen xuxurla bezala sentituko da euskara ondoko egunean Tolosan: bizi eta indartsu, ahotik belarrira.

“Ahoz aho”, ahozkotasanaren nazioarteko jaialdia

Arte eszenikoen laborategi Asvineneak antolatutako ahozkotasanaren nazioarteko jaialdiko hainbat ekimen Tolosan egingo dira aurten. “Ahoz aho” lelopean egingo da jaialdia eta bertako parte hartzaileek hitza erabiliko dute komunikaziorako bitarteko nagusi bezala. “Ahoz aho” jaialdiaren baitan egingo diren ekimenen artean bat nabarmentzearren, Kongoko Bertrand N’Zoutani-ren emanaldia aipatuko dugu.



May Gorostiagaren hitzetan, “griot-ak bizidunen eta hilen munduak lotzeko azken hitza izan ohi du”. Ondorioz, norbaiten biziarengatik ezer egin ezin daitekenean, griot-aren esku geratu ohi da. Halaber, griot-ak herriaren memoria kolektiboa

gordetzeaz arduratzen dira. Bertrand N’Zoutani-ren emanaldian musika, kantua, dantza eta ipuinak nahastuko dira.

May Gorostiagak azaldu digunez, “Ahoz aho” nazioarteko jaialdiaren helburuetariko bat ondokoa da: “kanpoko kulturak ezagutzea gure egiteko eta gure kulturak erakustea beraiek eramateko. Elkartruke bat da”. Ildo horretan, ahozkotasanaren garrantziaz ohartarazi du: “historiaren zati bat idatzia dago baina beste zati garrantzitsu bat ipuinei eta kondairei esker dakigu”.



Bertrand N’Zoutani griot -a da. Griot-ak beren herriko pertsonairik garrantzitsuenera izan ohi dira tribuko nagusiarekin eta aztiarekin batera. Hirurek betebeharrak garrantzitsuak izaten dituzte herrian: herritarrak gobernatzeaz, herritarren gorputzaz eta herritarren izpiritua elikatzeaz arduratu ohi dira, hurrenez hurren, nagusiak, aztiak eta griot-ak. “Ahoz aho” jaialdia antolatzen aritu den

“Ahoz aho” jaialdiko egitaraua (Tolosakoa)

Martxoak 19, larunbata

17.00. Amaro. Doro Zobaran. Euskaraz.

Martxoak 24, osteguna

16.00. EPA. Jose Campanari (Argentina) eta Mercedes Hernandez (Mexiko). Gaztelera.

17.30. Amaro. Badut (Andu eta Txefo). Euskaraz.

20.30. Otsabi. Asun Rodriguez (Katalunya), Ana Torrellas (Venezuela) eta Mayge Torrente (Valentzia). Gaztelera.

Martxoak 26, larunbata

11.30. Bonberenea. Doro Zobaran. Euskaraz.

17.00. Otsabi. Bertrand N’Zoutani eta Robert Mavoula (Kongo). Gaztelera.

19.30. San Esteban. Asun Rodriguez (Katalunya) eta Ana Torrellas (Venezuela) eta Mayge Torrente (Valentzia). Gaztelera.

Martxoak 27, igandea

11.30. Bonberenea. Irantzu Mantxo. Euskaraz.

Apirilak 8, ostirala

20.30. Kultur etxea. Koldo Amestoy. Euskaraz.



ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176



SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketak.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA





aldarrikape

Datorren martxoaren 21ean, astelehenean, Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatuko da. Hori dela eta Tolosaldeko zenbait herritan aldarrikapen ekintzak burutuko dira eguna gogora ekartzeko. Eki-
men horien atzean Tolosaldea Garatzeneko Migrazioa eta Aniztasun saila eta SOS Arrazakeria egongo dira.

Naiara Roldán de Aránguiz



Nazio Batuen Erakundeak martxoaren 21a hautatu zuen Arrazakeriaren Nazioarteko Eguna ospatzeko; horren erreferentzia

1960an dugu. Orduko martxoaren 21ean poliziak Sharpevillen (Hegoafrika) apartheid-aren aurkako manifestazio baketsu baten

aurka tiro egin zuen. Egun honen izendapenaren bitartez munduko edozein tokitan buruturiko arrazagatiko bereizketa, xenofobia, arrazismo eta intolerantzia ekintzak salatu nahi dira.

Tolosaldeko ekimenak

Tolosaldera bueltatuz, hona hemen antolatuko diren ekimenen berri. Martxoaren 15tik apirilaren 15era bitartean Ibarako Kultur Etxean 'Ni ere pertsona' erakusketa ikusgai egongo da. Erakusketa honen bitartez etorkinen errealitatea gerturatu eta ulertarazi nahi da,

ahotsa ez dutenei ahotsa emanez. Iragan abenduan 'Mundu bat Tolosaldean' ekimenaren bitartez zenbait herritarrek erakusketa bisitatzeko aukera izan zuten Alegian. Oraingoan, ordea Ibararen txanda izango da. Kristina Morales, Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun teknikariaren esanetan "erakusketa honen bitartez migratzailearen jatorrizko herrialdera gerturatzeko proposamena egiten da, etorkinak zergatik migratu duen ulertzeko bidea". Panelen bitartez bisitariak jatorrizko herrialdearen datuak eskuratzeaz gain, etorkinen errealitatearekin sentibilizatzeari nahi da.

Martxoaren 21ean, Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean bertan, Tolosan arratsaldeko 19.00etan arrazakeriaren aurkako ekintza antolatu da. Ekintzaren nondik norakoa ezin zabaldu, izan ere, 'inpaktu-suspense-ustekabe' ekimena

ALDATZ Kristaldegia

Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispi luak
Beirate artistikoak
Dutxa-itxurak

Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

Arazakeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Tolosaldea ere nerako gune

izango baita.

Apirileko aurreneko astean haurrei zuzendutako ekintza martxan jarriko da, haurrak haur direnetik kultura ezberdinetara gerturatzeko asmoz eta gerora begirako intolerantzia jarrerak ekiditeko. Tolosako liburutegian hizkuntza ezberdinetan ipuin kontaketa eskainiko dira. Ekimen honek ingelesez eta euskaraz zein ingelesez soilik eskainitako ipuin kontaketa du abiapuntua. Oraingoan ordea arabiera ere erabiliko da. Kristina Moralesen hitzetan "arabiera sartzearekin eskualdean bestelako hizkuntzak egon badaudela gogoratu nahi dugu eta baita etorkin hauek liburutegietara gerturatu ere. Kultur ekimen hauek bai Tolosaldeko edozein herritarrentzat eta baita etorkinentzat ere zuzendurik daude, azken hauek gehienetan antolatutako ekimenak ez baitituzte bereak bezala sentitzen".

Arazakeriaren Aurkako Martxa

Azkenik aipatu behar da SOS Arazakeria Gipuzkoa elkarteak deituta, datorren martxoaren 27an, goizeko 11.30ean, Arazakeriaren Aurkako Martxa antolatu dela. SOS Arazakeria elkarte independentea, demokratikoa, etnia anitzekoa eta askotarikoa da. Azalaren kolorea, jatorria, kultura edo erlijioa aitzakizat hartuta egiten den diskriminazio eta bazterkeria molde guztien aurka borrokan aritzen da. Helburu berdineko martxak Donostialdean izango du kokaleku; Txintxerpetik abiatu eta Donostiako Bulebarrean amaituko da. Kristina Moralesek, Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun teknikariak, tolosaldeko herritar guztiei gonbitea luzatzen die bertan parte har dezaten.

Martxoaren 27ko ibilaldi honen 'Eskubide sozial eta politiko berdinaren alde hiritartasun

osoaren alde, diskriminaziorik ez' lema izan eta aldarrietako bat gizarte berri bat eraiki nahi izatea da. Hau da, atzeritarren ganako mesfidantza, beldurra eta gorrotoa alde batera utzita eraikitako gizartearen aldeko apustua burutuko da aipatu martxan. Honelako aldarrikapena burutu nahi du SOS Arazakeria Gipuzkoak: "gizarte integratu bat nahi dugu, bertan bizi garen pertsona guztioi eskubide berberak emango dizkiguna, kontuan hartu gabe non sortuak garen, zein erlijio dugun edo batera erlijiorik ez dugun".

Azken finean, honelako nahia duen Gipuzkoa bat badela zehazten du gipuzkoar erakundeak eta berau da SOS Arazakeriak indartu nahi duena: "Gipuzkoa solidarioa, pertsonen arteko harremanak eta erlazio sozial eta politikoak beldur, mesfidantza, xenofobia eta arazakeriarik gabe eraiki nahi dituen", alegia.

Saldias Miguel

**CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegurua
Kotxe-asegurua
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurua
Denda-asegurua
Erreirioak
Inbertsio fondoko

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

Tolosa Bit
Informazioa Zerrituzak
Ordezkoak eta konpainiak
Egitea eta jarduera-erretasun
Mantentzeak

Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

Koldo Izagirre

“Euskararen lehen mailako hiria izateko Tolosak zer falta du?”

Euskarari autopsia egin eta artseniko aztarnak topatu ditu Koldo Izagirrek. “Autopsiarako frogak” izeneko saiakera liburuan bildu ditu frogak eta Galtzaundik berarengana jo du argibide gehiagoren eske. “Euskara gizarteko hizkuntza nagusia izatea biztanleria eleanitzean” behar du izan hizkuntza politikaren helburua Koldo Izagirreraren iritzian, baina “ez dago inolako planifikazio seriorik euskarari legez eta bidez zor zaion hizkuntza ofizialaren estatusa emateko”, gaineratu du. Elkarrizketan sakondu ahala, “Tolosa ez dago gaizki kokatua euskararen lehen mailako hiria izateko”, bota digu. Jarraian, ordea, “zer falta ote du?”, galdera luzatu du. Guztion artean erantzun beharreko galdera delakoan, Galtzaundik Tolosara gonbidatu du Koldo Izagirre. Martxoaren 22an, 19:30ean, kultur etxean egin dugu hitzordua Koldo Izagirrerekin; Tolosaldeko euskaltzaleekin; zurekin.

Galtzaundi

Dabid Anaut euskara teknikariak honako hau esan du: “Urteetako esperientziaren ondorioz, mila planteamendu daude. [...] Eredu zaharra eta berria, identitatea eta pragmatika, emozioak eta ideologia, intuizioa eta planifikazioa...”. Euskarari buruz eta euskararen normalizazioari buruz ez al daude diskurtso gehiegi eta, askotan, kontraesankorrak?

Kontraesan eta ugaritasun horiek, nik uste, elebitasun eredu honen porrota adierazten dute. Ez dago inolako planifikazio seriorik euskarari legez

eta bidez zor zaion hizkuntza ofizialaren estatusa emateko. Bestalde, kezka bat adierazten dute, eta hori ona da. Baliteke kontrakorrak egotea, baina elkarren osagarriak ere badirela esango nuke nik.

Euskararen normalizazioa helburu egitasmo asko jarri dira martxan instituzioetatik nahiz herri mugimendutik. Zer bota duzu faltan eta zer soberan?

Hainbeste aipatzen den normalizazioa, zer da? Anormaltasun batean bizi garelako aitorza. Horretatik aurrera ezer

askorik ez da, “normalizazioa”. Instituzioak, kasurik onenean, diru-banatzailak dira. Jeloskor dira herri mugimenduengana.

Hizkuntzen kategorizazioa oso zabaldua dago: hizkuntza batzuek ez dute balio gauza jakin batzuetarako. Ez al gara ahulegiak halako diskurtsoen aurrean?

Ez dakit zeinek egiten dituzten halako diskurtsoak, baina aspaldi daude desaktibatua, euskararen munduan behintzat. Izatez gerotan, erdaldunak eta espainiarrak manipulatzeko

erabiliko dituzte. Euskarari beste bide batzuetatik egiten zaio eraso: euskal sukaldaritza bertatik, etxegintzatik, hirigintzatik, garraio berrien diseinutik, sasi-umoretik, sasi-konbibentziaren diskurtsoetik... edo txotxongi- loen museo batean telezaborrako pertsonaiak ikusgarri jarrita, artearen eredu. Hori, egia esan, gaztelaniari ere egindako eraso da.

Lehen herri askotan: ikastetxean erdaraz eta kalean euskaraz. Orain, aldiz, ikastetxean euskaraz eta aisia erdaraz. Zer duzu

esateko? Zer nolako etorkizuna eraiten ari gara?

Ez naiz irakaslea eta ez dut hezkuntzaren mundua ezagutzen. Ni beti inguru erdaldun gogor samarretan bizi izan naiz, eta neure gaztetan baino askoz euskara gehiago entzuten dut bazterretan, dela jolastokietan, dela dendetan, dela tabernetan... Ikastetxean erdaraz eta kallean euskaraz, nik ez dut ezagu-

tu. Nik ezagutu dudana izan da etxean euskaraz, eskolan erdaraz, kallean erdaraz eta ondorioz, etxean, azkenik, erdaraz. Horri buelta eman zaio kasu askotan, kontzientzia bat piztu zelako. Eta asko diren kasu horietako askotan, umeez euskaldundu dituzte gurasoak. Baina horretarako, gurasoek ere kontzientzia behar, borondate bat.

“Hizkuntzaren borroka soziala”. Euskara ikasgai dutenentzat, ez al da erakargarriagoa hori aditzen taula baino?

Dударик gabe, baina gero EGA dago, eta titulua nahi du jendeak... Selektibiterainokoa euskaraz egin eta euskararen gaitasun titulua behar? Hori bai dela kontradikzioa! Aditzen taula baliabide ona da, baina hori besterik ez da, kontsultarako

zerbait. Eta, gainera, euskararen aditza sinplezia batean labor liteke, taula xume eta bakar batean labor liteke... Gure hizkuntzaren historia soziala ikasgai zoragarria izango litzateke, bai. Irakaslea nolakoa den, jakina.

Zure liburuak, Torrealdairen “El libro negro del euskara” liburuak eta beste batzuek euskarak eta euskaldunok historian jasanda-



ko zapalkuntzaren berri ematen digute. Oinarri ona izan al litezke eskoletan euskararen historia soziala irakasteko eta euskaldunon identitatea indartzeko?

Euskararen historia soziala, lehenik, historia soziala da. Eta historia soziala ez dator bat historia ofizialarekin. Euskaldunok, hizkuntzarekin identifikatzen gara eta gaituzte. Baina beste identitate batzuk sortu dira, bai historikoki, bai gure garai honetan. Iñigo Aranbarrik aspaldi aipatu zuen, esaterako, Goizuetatik CAV-ko erakunde bati deitu euskaraz, eta euskaraz erantzutea "Goizuetarra? Baina ezin dizugu atenditu, zu ez zara euskalduna!" Ona izango litzateke, dudarik gabe, tanta sozial batzuk ematea... Identitateak nola sortzen diren ikasiko lukete gainera.

Aurrera begira, zure ustez zenbaterainokoa da euskara hizkuntza formalegia eta bizitasunik gabea bihurtzeko arriskua?

Baina zer da formala eta zer bizia? Informala, bizia da? Formala, motela da? Euskara bizia egiten dutela uste duten askok euskara txarra egiten dute. Bizitasunean ere, formalidadea behar da.

Liburuan euskal hiri baten premia aldarrikatzen duzu: gure Bartzelona, gure Paris. Donostia izan liteke oraindik hiri hori, edo aukera hori galdutzat duzu? Donostia izan ezean, zein izan liteke hautagai sendoena?

Oso ahaztua daukat testua, beti gertatzen zait, liburua publikatutakoan hustu bezala egiten zait burua, hurrengoari lekua eskaintzeko edo. Baina ez dut uste aldarrikatzen dudarik hiriburu bat, ez daukagula esan bai. Donostia beti da aukera galdu bat. Hor dago, potentzialitatea dauka. Frustrazio handiak hartzen ditu euskaldunak Donostian. Baina Euskararen Pa-



tronatua dauka udalak, eta hori nabaritu egiten da uste dena baino alor gehiagotan. Tolosa ez dago gaizki kokatua euskararen lehen mailako hiria izateko. Zer falta ote du?

Euskararen egoera penagarria da alor eta toki askotan, baina ez dirudi pena ematea estrategia eraginkorra denik. Nola askatu korapilo hori?

Egoera bat izateko, egon bat eduki behar da. Beraz, egoera penagarri batean, egon badago euskara. Nondik dator penagarria? CAV-ko ardituek behin eta berriz esaten dute erakundeei esker eta politika zuhur bati esker egin duela aitzina euskarak. Ez da egia, Iruñean euskarak ez baitu atzera egin, aurrera baino, urteotan. Baldintza gogorrenetan euskarak iraun ez ezik aurrera egiten badu, zein da korapiloa lotu duena?

Zer diozu esaldi hauei buruz?

- Dabi Anaut: "Euskararen aldeko gauzak egin beharrean, gauzak euskaraz egin behar ditugu".

Horretan ari gara aspaldi samarretik hona idazleok, kantariok, kazetariok, mintzalagunok, festa antolatzaileok, bertsolariok... Baina euskararen aldeko

gauzak ere egin beharko dira gero ere.

-Txillardegi: "Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; gabe, ziur ezetz."

Ados, eta eman dezagun beraz hurrengo pausoa. Zein estatu mota izango litzateke euskara salbatzeko gai izango ez litzatekeen euskal estatu hori? Halako arriskuan baldin bagoaude, estatu posible hori berdefinitzen hasi behar genuke. Euskarak egitura politiko inbiolablea hartuko lukeen lurralde hori alegia.

Benito Lertxundik "Ez dok Amairu" baten antzeko zerbaiten beharraz hitz egin du. Euskal kulturgintzatik halako hausporik etorriko al da? Etorri behar al du?

Ez dok amairu...! Hamabost urte nituen, garai hura ez da itzuliko. Baldintza berezitan bizi ginen, goseak geunden eta kantuek asetzen gintuzten, oso kantagintza popularra eta kultua zen ordukoa aldi berean. Uleritzen dut Lertxundiren desioa. Auskalo, mugimendu batzuk programatu gabe sortzen dira... Kantariak bai daudela egoera penagarrian, nazka-nazka egin da egon behar du Benito Lertxundik.

Eusko Jaurlaritzan eta Nafarroako Gobernuan hizkuntz politika kulturaren baitan dago sartuta. Ez al du horrek hizkuntz politikaren ikuspegi murriztuegia adierazten? Euskara soilik kulturarekin lotuta dagoela pentsatzea ez al da akats handi bat?

Bai, bazterketa modu bat da. Beste erakunde batzuetan, kultura egin nahi duzunean, antzerki bat euskaraz esaterako, euskara bezala sailkatzen dute, ez kultura bezala. Hori ere bazterketa da, euskaraz egiten dena ez baita euskara ez beste ezer. Baina teknikariek esplikazio tekniko mordoia daukate horrelako kasuetarako.

Teknologia berrien garai hauean kulturgintzan aritzen diren askok euskara ez beste hizkuntzak aukeratu dituzte komunikaziorako bitarteko. Zer hausnarketa eragiten dizu?

Kulturgintza neutrorik ez dago. Euskaldunek euskaldunekin komunikatzeko euskara ez erabiltzea, harrigarria egiten zait. Hala bada, akulturizatutako kulturgileak ditugu. Kulturismo ikastaroren batera eraman beharko!

Elebitasuna elebakar erdaldunaren baitatik ateratako hizkuntz politika bada, euskaldunon hizkuntz politikak zer izan behar du helburu? Nola lortu behar du?

Euskara gizarteko hizkuntza nagusia izatea biztanleria eleanitzean. Nola lortu? Atxilotu egiten zuten erantzuna.

"Artseniko aztarnak gure hizkuntzan" dio liburuaren azalak. Nork edo nortzuk pozoitu dute? Zein da pozoia?

Euskal indar erreakzionario guztiek eta ezkerreko abertzale pragmatikoek, inperialista linguistikoekin batera, pozoitu dute. Pozoia mutantea da, oportunismo politikoa bezala.



Txarli Gesteira

Blogaria

txarli/berriketana.info

Twitter sare-sozial eta microblogging zerbitzua da, bere erabiltzaileei testu soileko mezuak bidaltzeko aukera ematen diena, gehienez 140 karaktereko luzerarekin, SMS baten antzera, bat-bateko mezularitza ahalbidertzen du. Horretarako Twitter-en (<http://twitter.com>) webgunea, Firefox-Echofon nabigatzailea edota Splitweet (<http://eu.splitweet.com/>) bezalako aplikazioak erabili ditzakegu. Mugikor batzuek ere Twitter erabiltzeko aplikazioak izaten dituzte.

Zintzilik: Twitter euskaraz

Twitter-era bidalitako testuak, pribatuak edo publikoak izan daitezke. Jatorrizko erabiltzaileak mezu hauek berak aukeratutako lagunei soilik bidaltzea aukeratu dezake, edo erabiltzaile guztien eskura jarri.

Duela hilabete bat edo, "Twitter euskaraz" kanpaina jarri zen martxan. Besteak beste, Lander Arbelaitz, Argiako kazetariak jarri zuen martxan, <http://act.ly/35s> helbidean, eta hiruz pa lau egunetan 1.000 lagun baino gehiagok eskakizuna egin zuten. "Adituek" diote 3.000 eskakizunekin Twitter euskaratzeko aukera kontutan hartuko luketela zerbitzuaren arduradunek. Dagoeneko 1.600 inguruk eman diogu atxikimendua.

Egun, tresna bera, euskaraz erabil dezakegu, hau da, gure mezuak euskaraz

idatzi ditzakegu, nahiz eta ingelesez edo gaztelaniaz izan zerbitzua. Baina garrantzitsua da, "interfacea" (zerbitzuaren webgunea bera) euskaraz egotea. Euskaratzea lortuko balitz, ez litzateke soilik euskal erabiltzaileen onurarako izango, ikuspegi global batetik ikusita ere euskaratze honen, euskararen, hizkuntza bezala, errekonozimendu bat ekarriko luke. Horrelako tresnak euskaraz izatea garrantzitsua da, atzetik etorriko diren zerbitzu edo aplikazio berriak ere hizkuntza hau kontutan hartuko luketelako.


Euskaratzeko bi aukera daude, zerbitzuaren arduradunek egitea, edo hauek euskaratzeko baimena ematea. Bigarren kasu honetan, interneteko euskal komunitateak, beste hainbat tres-

nekin egin duen bezala, bolondreski egin beharko luke itzulpena. Interneteko euskal komunitateak badu euskaratze lanetan eskarmentu handia...

Kanpaina hau sinatu dutenen artean, 362.000 jarraitzaile dituen Xabi Alonso (<http://twitter.com/#!/XabiAlonso>) futbol jokalaria tolosarra dago besteak beste, eta honen bidez Liverpoolleko hainbat jokalariek ere beraien atxikimendua eman diote kanpaina honi. Mundu osotik egin dira eskakizunak, ez soilik Euskal Herri-tik, ikusi eskakizunen mapa helbide honetan (<http://act.ly/petitions/4096/map>).

Nola egin bat kanpaina honenekin?

Lehenik eta behin twitter erabiltzailea izan behar duzu noski, horretako zerbitzuan

izena eman behar da. Gero nahikoa da #twittereuskaraz jartzea zuen mezuetan, edota <http://act.ly/35s> helbidean atxikitzea. 



irakurri entzun Ikusi

Azken Tranbiaren Itzala
Jose Inazio Basterretxea

1938ko uztailaren 30ean, faxistek Bilbo hartu zutenetik urtebetera, hiriburutik hurbil den herri batean, hari bi gurutatuko dira. Batetik, auto ofizial batean zenbait frankista nabarmen datoz: Augusto Beitia armadore eta estraperlista eskrupulu gutxikoa, eta Miguel María Sasnar, kazetari militar barren usteleroa; misio ezkutu bat izan berri dute Bordelen, bizirik dirauen gerak horrelako lan beltzak ere eskatzen baititu oraindik.

Gezurra ez da egia
Imuntzo eta Beloki

Disko berri honetan zertzeladaz beteriko triki-mundu espresibo antzaz gozatu ahal izango dugu. Tradizioari loturiko piezetan, dantza soltearen graziak eta energiak harrapatzen gaituzten bitartean, bestelako kantuetan, musika moldaketa eta interpretazio bikainak, musika talde eraginkor bat, ideia garaikideak eta produkzio modernoa ere aurkitzen dira. Erromeriaren arima ikaragarri elikatzen duen egiazko jakia da disko honen benetako altxorra.

Jainkoez eta Gizakiez
Xavier Beauvois

Canneseko azken zinemaldian Epaimahairen Saria. 90. hamarkadan, Magrebeko mendietan, biztanleri musulmanarekin orekan bizi diren zortzi monje zistertarren istorioa kontatzen du. Fundamentalista islamikoen talde batek atzerriko langile batzuk hil ditu, eta izua eskualde osoan zabaldu da.

Martxoaren 18tik apirilaren 1a bitarteko hitzordduak

Jardunaldiak



Aurrez Aurre Jardunaldiak. Martxoaren 18an, ostiralean. Performancea: 'Corta con el maltrato'. 21.30ean, Tolosako Kikara Tabernan.

Gipuzkoa Encounter. Martxoaren 18tik 20ra. Usabal Kiroldegia eta Triangulo Plaza eta Tolosako hainbat toki.

Hitzaldia

Koldo Izagirre. Martxoaren 22an, asteartean. 19.30ean, Tolosako Kultur Etxean. Galtzaundi Euskara Elkarteak antolatuta.

Aitzol Euskal Pizkundea

Aitzolen 115. urteurrena. Martxoaren 18an, ostiralean. Jaiotako Gorosabel kaleko 12. atarian plaka oroigarria jarriko

da. Aitzol euskaltegiak eta euskara erakundeak biltzen dituen Euskaraeneak bultzatuta egun osoan Aitzolen testuen irakurketa egingo da.

Zuhaitzen landaketa. Martxoaren 19an, larunbatean. Tolosako Elosegi parkean. Hasiera emanez Zintzoen Basoari, Aitzol eta euskal pizkundearen, gizon-emakume haien txokoa bihurtuz.

Kontzertuak



Borrokak eta Yakuzi. Martxoaren 18an, ostiralean. Tolosako Bonberenean, 22.30ean.

Vendetta. Martxoaren 19an, larunbatean. Tolosako Bonberenean, 22.30ean. Disko berriaren aurkezpena.

Joseba Tapia. Martxoaren 25ean, ostiralean. 20.30ean, Topic-en. Euskaraenea ekimena.

Ama Say eta Mursego. Martxoaren 26an, larunbatean. Tolosako Bonberenean, 22.30ean.

Tolosa Kantari. Martxoaren 26an, larunbatean, 12.00etan. Agirre doktorearen plazan (Tontokale)

Haurrentzat

Paperezko istorioa. Martxoaren 19an, larunbatean. Behi Bi's. 18.00tan, Topic-en. Helduak 7 € / Haurrak 4 €. Luziak denetarik du, etxe bat, gurasoak eta azken belaunaldiko milaka jostailu, baina bakarrik sentitzen da. Gurasoak lanean daude beti eta inoiz ez dute berarekin jolasten. Horregatik egun batean Tronpi txakurra oparituko diote.

Ongi etorri, Pupu eta Lore. Martxoaren 26an, larunbatean. 16.30 eta 19.00etan, Leidor-en. Pirritx, Porotx eta Marimotots. Pupu eta Lore Pirritxen ume bikiak dira. Umeak hazi egin behar dira, hazi eta hezi. Osasuna da aurrena, jakina, eta hor agertuko da Tiritatxo mediku laguna, bere aholkuak ematera. Naturaren parte garenez, natura zainduz gure burua ere zaintzen dugu, eta horretan ez dago Largabista jauna bezalako maisurik. Marikalanbrek zientziaren magia oparituko digu, eta berarekin ikasiko dugu zientzia ondo erabili behar dela beti. Martinbertso, kontu kontari etorriko zaigu. Horixe gure koadrila, Irrien Lagunen koadrila.

Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionaturako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

| Ikastaroaren izena | Hasiera data | Ordu Kopurua |
|--|--------------|--------------|
| Internet + e-administrazioa | 2011/03/10 | 20 |
| Elikagaiak manipulatzeko agiria lortzeko ikastaroa | 2011/03/15 | 6 |
| IKT-ak: Twitter, Facebook, blog, musika sortzeko ikastaroa, on-line ligatzeko ikastaroa. | 2011/03/18 | 4 |
| Testu editorea, kalkulu orria eta datu basea | 2011/03/21 | 40 |
| Zaldien maneiu eta zaintza | 2011/03/21 | 35 |
| Paper makina (kimika) | 2011/04/12 | 50 |
| Eragiketa osagarriak prozesu eta segurtasunean (kimika) | 2011/04/113 | 40 |

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com

Zinema

Jainkoz eta Gizakiez. Martxoaren 19an, larunbatean, 19.30ean eta martxoaren 21ean, astelehenean, 20.30ean Leidor aretoan.

Nanny 2. Martxoaren 25ean, ostiralean. Zinea euskaraz ikasleentzat. 09.00etan, Leidor.

Txori Urdin. Martxoaren 29an, asteartean. Zinea euskaraz ikasleentzat. 09.00etan, Leidor.

Azokak

Tolosako Azokak + Kilometro 0 ekimena. Martxoaren 19an, Tolosan. Zerkausan.

Korrika

Korrika 17ren aurkezpena. Martxoaren 28an, 19.30ean. Tolosako Lizardi Elkartean. Euskararenean ekimena.

Korrika 17ko dokumentalaren proiektzioa. Martxoaren 31n, ostegunean, 19.00etan. Euskararenean ekimena.

Erakusketak

Naroa Armendariz. Martxoaren 31a bitartean. Pintura, Tolosako Aranburu Jauregian.

Goardiako farmaziak

| | | |
|--|--|--|
| Ostirala, 18 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa | Asteazkena, 23 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa | Astelehena, 28 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa |
| Larunbata, 19 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra | Osteguna, 24 Ugarte M ^a T. Euskal Herria, 46 Ibarra | Asteartea, 29 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa |
| Igandea, 20 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa | Ostirala, 25 Olarreaga I. (Korroa kalea, 2) Tolosa | Asteazkena, 30 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa |
| Astelehena, 21 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa | Larunbata, 26 Aziproz L. (Amaroz 9) Tolosa | Osteguna, 31 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra |
| Asteartea, 22 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa | Igandea, 27 Bronte C. (Korroa, 20) Tolosa | Ostirala, 1 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa |

Telefono interesgarriak

| | | |
|--|--------------------------|----------------------------|
| Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur | Gernikako Arbola, hitzor | 943 006 900 |
| Osasun zentroa | 943 653 212 | Amarozko dispensarioa |
| Altzo | 943 654 737 | Asunzion klinika |
| Medikua | 943 652 339 | (Iarrialdiak) |
| Anoeta-Alkiza-Hernalde | 943 889 003 | San Kosme San Damian |
| Medikua | 943 683 361 | geriatrikoa |
| Baliarrain | 943 681 134 | Udaltzaingoa |
| Medikua | 943 683 361 | Ur eta Argia (Tolargi) |
| Berastegi-Elduain | 943 681 134 | Ur zerbitzuak (aberiak) |
| Medikua | 943 683 361 | Iurreamendi egoitza |
| Bidegoian | 943 683 361 | Larrialdiak, Suhiltzaileak |
| Medikua | 943 681 134 | DYA |
| Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu | 943 672 411 | Gurutze Gorria |
| Osasun etxea | 943 672 411 | Ertzantza |
| Ikaztegieta | 943 653 329 | Tolosa Gasa |
| Medikua | 943 653 329 | Lizartza |
| Irura | 943 690 720 | Medikua |
| Osasun zentroa | 943 650 931 | Orendain |
| Tolosa | 943 006 800 | Medikua |
| Anbulatorioa, Iarriald. | 943 006 800 | Orexa |
| San Esteban, hitzordua | 943 006 800 | Medikua |



SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA

Errotulazioa & india
Vicente
www.rotulosvicente.com

943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Laskibar bialara 25, 1-04 atea
20271 Inura (Gipuzkoa)

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalok
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886 - 943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259 - 943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615 - 943 671 149

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldia eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

Bikote euskalduna baserri edo borda batean alokairuan jartzeko prest. 652 715 800

Salgai

• Igin markako akordeoia saltzen da. Tainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxoa opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

• Limosin arrazako 6-8 hilabeteko txekor idiskoa erosiko nuke zezenetarako. Kartaduna. 943694736 / 618185337



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Maitasun kontu mugituak. Bikotekiderik baduzu, giroa lasaia eta sentsuala izango da. Bakarrik bazaude ordea, zure atentzioa deituko duen norbaitekin topo egingo duzu.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Garai txarra amaitzera doa, agur nerbioei eta loezinari. Gorputzez eta adimenez hobeto egongo zara, oreka egokia mantenduz. Hala ere, tentuz ibili mikrobio eta birusekin!



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Bikotekidearekin bizi bazara, ez da denboraldi erraza izango. Bikoteak mimo gutxi eman eta kontrara topaketa berriek kontrolatu ezineko emozioak sortuko dizkizute. Fideltasunari eusteko gai izango al zara?



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Garai ekonomiko txarrak amaitzear egon beharko luke. Hala ere, finantzak bere horretara itzultzeko denbora tarte bat behar izango duzu. Irमतasunez eutsi eta helmugara helduko zara.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Zalantza garai honi aurre egiteko ahalginak egin beharko dituzu, ezbai horiek isilarazi eta aurrera egin. Arrakasta profesionala, zure lan egoera hobetzeko aukera. Ekimen arriskuetsuetan barneratuko zara, tentuz ibili!



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Osasun ona. Kirolariek garai ezin hoberekin zortea aldeko izango dute. Hala ere, gehiegikeriak albo batera uztea gomendagarria litzateke eta bizkar arazorik baldin baduzu, berandu baino lehen medikuarenera jo beharko zenuke.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Bikotekidearekin kontuak aldrebesturik baldin badaude, erabakietarako garai helduko da. Arrazoa ulergarria suertatzen baldin bazaizu egoera onbideratu egingo da, baina kontrakoa gertatuz gero haustura berehala emango da.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Bizitzari etekina ateratzea zoragarria da! Baina, gehiegikeri gastronomikoek osasun arazoak ekar ditzaketela ez ezazu ahaztu. Diru kontuetan egonkortasuna nabaritu duzu, ez ustekaberik ezta kontrarik ere.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21
Arrakastaren bila zabilta; ez duzu ez energia ezta garra ere neurtuko, baina oztopo handi batekin topo egingo duzu: iraganean hartutako erabakiekin hain zuzen. Hala ere, lasai egon zaitezke hori gainditzeko gai izango zara eta!



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20
Azken aldieta gehiegikeria zure bizitzatik at uzteko erabakia hartu duzu, ez zara damutuko. Soldata igoera eskatzeko momentu aproposa ote den aztertu ezazu, gogoan izan egun hauetan zortea aldeko duzula.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Bikotearengandik oso gertu sentituko zara, elkar ulertzeko hitz egin beharrik ez duzue izango. Bikotekiderik ez baduzu, garai hau gogor samarra egingo zaizu, bakardadeak sekula baino pisu gehiago izango du.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20
Energiaz gainetza egongo zara, zure defentsa naturalek era egokian lanean dihardute. Arregatasunak ihes egingo du, eta berarekin batera bizkarreko minak ere. Elikadurari erreparatu eta osasuntsuago jaten hasiko zara.



EXPRES ESTUDIOA

- 3 argazki akordeoi eran 15x15
- Anpliazioa 30x40

69€

ESTUDIO BASIKOA

- 12 orriko albuma
- 10 oroigarri diptiko
- Anpliazioa 30x40

169€



www.ikatz.es



Jaunartzeak

FOTO IKATZ ORDIZIA - joxe miguel barandiaran 1 - ORDIZIA

tel. 943 027 435

SUPER EKO

SUPERMERKATUA

Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua



Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa



BATU GAITEZEN

GIPUZKOAK AURRERA EGITEKO



www.gipuzko.com

HILETAREN BALIOA

Antzinako Egipto

70 EGUN behar izaten ziren gorputz bat baltzamatzeko

2,3 MILIOI

harrizko bloke erabili ziren piramide handian



6.000 €

kostatuko litzateke gaur egun gorputz bat baltzamatzea

3.500 GAUZA

balio handiko aurkitu zituzten Tutankamonen hilobian

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermarekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

www.funerariavascongada.com
24 orduko zerbitzua: 902 402 900

25 urte
TOLOSAN

